

EZGAITASUN GRADUAREN BALORAZIOA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > IZerbitzuei buruzko informazioa eta orientazioa, eta nola eskuratu

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Zerbitzu honen bitartez **desgaitasuneko egoerak identifikatu** eta, hala badagokio, **mailakatzen** dira ([fitxa 2.1](#)). Era berean, bere berrikuspena ere egiten du. Desgaitasun-maila ehunekotan neurtzen da, eta honako maila hauek ezartzen dira:

- **%5 eta %24 arteko desgaitasuna:** eguneroko bizitzako jarduerak egiteko zailtasun arina antzematen da, baina pertsona independentea da ia guztietan.
- **%25 eta %49 arteko desgaitasuna:** pertsonak zailtasun moderatua du eguneroko jarduerak egiteko. Eginbeharretako batzuk egiteko ezintasuna egon daiteke, baina pertsona independentea da bere burua zaintzeko jardueretan (bainatu, jantzi, jan, lo egin, eta abar).
- **%50 eta %95 arteko desgaitasuna:** pertsonak zailtasun larria du eguneroko jarduerak egiteko. Zenbait lan egiteko ezintasuna egon daiteke, autozainketa-jarduerak barne (bainatzea, jantzea, jatea, lo egitea eta abar).
- **%96 eta %100 arteko desgaitasuna:** pertsonak zailtasun larria edo erabatekoa du, eta eguneroko bizitzako ia jarduera guztiak egiteko ezintasuna, bere burua zaintzeko jarduerak barne (bainatzea, jantzea, jatea, lo egitea, etab.).

Kontuan hartzen dira, gainera, desgaitasunak eragindako desabantaila-egoera larriagotu dezaketen faktore pertsonal edo sozialak. Desgaitasuna duen pertsona gisa aitortua izateko, **beharrezkoa da desgaitasuna %33koa edo handiagoa izatea**. Ondoren, zerbitzuak zerbitzu edo **prestazio ekonomikorantz bideratzen ditu** eskatzaileak, edo bien konbinaziorantz, betiere beren beharrei hobekien erantzuten badiete eta zerbitzu edo prestazio horiek jasotzeko baldintzak betetzen badituzte. Halaber, erabiltzailearekin eta/edo familiakoekin batera, dagokion **Arreta Pertsonalizatuko Plana (APP)** adosten du. Egokia bada, erabiltzailea beste arreta-sistema

batzuetako baliabideetara bideratzen du.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Zerbitzua desgaitasun egoeran dagoen pertsona orori zuzenduta dago, modu iraunkorrean.

I. gradua - Mendetasun arina

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, gutxienez **egunean behin**, edo autonomia pertsonalerako aldizkako edo mugatutako laguntza-premiak dituenen.

II. gradua - Mendetasun larria.

Pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, **egunean bizpahiru aldiz**, baina ez duenean zaintzaile baten etengabeko laguntza nahi edo ez duenean laguntza zabalik behar bere autonomia pertsonalerako.

III. gradua - Mendetasun oso larria

Pertsonak laguntza behar duenean eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko **egunean hainbat aldiz**, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoziala erabat galdua duenez, beste pertsona baten laguntza ezinbestekoa eta etengabea behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar duenean.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Balorazioa eskatzen den lurralde historikoan erroldatuta egotea.
- Espainiako nazionalitatea izatea edo Espainiako estatuan legez bizitzea.
- Aldez aurretik diagnostikatu eta dokumentatutako ezgaitasun fisiko, psikiko, intelektual edo sentsozialen bat izatea.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzua ematea **foru aldundien ardura** da.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zerbitzu honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak

adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Desgaitasunaren balorazioa Araban](#)
- [Desgaitasunaren balorazioa Bizkaian](#)
- [Desgaitasunaren balorazioa Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)